

3R GAZTEA PROGRAMA: GAZTE KUALIFIKATUEN LANERATZEA SUSTATZEKO PROGRAMA

LAN-ORIENTAZIOA, LAN-BITARTEKARITZA ETA LANERATZEA

Helburua	Laguntzen helburua da 30 urte arteko kualifikatuak diren gazteak lan-merkatura sartzea, orientaziorako, aktibaziorako, prestakuntzarako eta bitartekaritzarako programa baten bidez, gazte horiek laneratu daitezen.
Erakunde onuradunak	Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateak. Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako zentroyen elkarteak.
Diruz lagundu daitekeen egitatea	Lan merkatuan laneratzeko programa bat egitea.
Programaren eskakizunak	Programa gehienez 90 gazteri zuzenduta egongo da, eta fase hauek izan behar ditu: <ul style="list-style-type: none">Banakako Lan-orientazioa: gehienez 15 ordu parte-hartzaile bakoitzeko.Lan-aktibazioa: aukerakoa. Gehienez 20 ordu parte-hartzaile bakoitzeko. Lan-aktibaziorako pertsonen kopurua : 8-20 pertsona presentziala bada.Lan bitartekaritza: gehienez 20 ordu parte-hartzaile bakoitzeko.Prestakuntza osagarria: aukerakoa: Prestakuntza berdintasunean: gutxienez 7 ordu Gai teknikoei buruzko prestakuntza: gehienez 60 ordu parte-hartzaile bakoitzeko. Prestakuntza-jarduerako pertsonen kopurua: 8-20 pertsona.Laneratzea: gutxienez programan parte hartu duten pertsonen %20.
Diru-laguntzaren zenbatekoa	Erakunde eskatzaile bakoitzeko: 90.000,00 euro.
Araudia	Bizkaiko Foru Aldundiaren 207/2023 Foru dekretua, abenduaren 21ekoa (BAO, 5. zbkia, 2024ko urtarrilaren 8koa), Bizkaiko Lurralde Historikoko laneratzeko Lan Berri Programaren 2023ko ekitaldiko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia ezartzen dituena. Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka araubidearen eta hainbanaketaren bidez izango da.
Epeak	Ekintzak egiteko epeak: 2024ko uztailaren 3tik 2025eko ekainaren 28ra. Eskabideak aurkezteko epea eta era: Eskabideak aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 29ko 9:00etan hasi eta 2024ko otsailaren 29ko 13:30ean amaituko da. Eskabideak Internet bidez aurkeztu beharko dira, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bulego birtuala erabiliz. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikora sartu behar da (www.ebizkaia.eus), eta bertan Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko sailaren bulego birtuala aukeratu.